

Jaime Altuna

Urtxintxa Eskolako koordinatzailea

«Kalean egiten diren jolasak euskaraz egitea da helburua»



Gari Garaiaide / ARGAZKI PRESS

Urtxintxa Eskolak 50 jolas bildu dituen CD-ROMa argitaratu berri du: *Euskal Jolasen Bilduma 2*. Haurren artean euskaraz jolasteko zaletasuna zabaltzea da lanaren helburua.

Zer da zehazki *Euskal Jolasen Bilduma 2* CDan bildu duzuen?

Iaz, lehenengo alea argitaratu genuen 50 jolasekin. Oraingo CD berri honetan, beste 50 jolas bildu ditugu. Bi CDekin, 100 jolasen bilduma osatu nahi izan dugu. Bertan, kalean jolasteko jolasak topa daitezke. Denek batean duten ezaugarria da euskaraz jolasteko direla. Batzuk, aspaldiko jolasak dira; horien artean, galduta zeuden batzuk ere berreskuratu ditugu. Baina badaude duela urte gutxi erabiltzen hasi direnak edo sortu ditu-

Jolasen bilketa egiteko garaian, non oinarritu zarete?

Duela 6 urte, euskarazko jolasaren ikerketa lan bat egiten hasi ginen, eta, jada, 300 jolasen datuak bilduak ditugu. CDko jolasak, batez ere, datu base horretatik hartu ditugu. Horrez gain, beste batzuk kalean topatu ditugu. Aiton-amonekin elkarrizketak eginez, eurek egiten zituzten jolasak eta gaur egun galduta zeudenak bildu ditugu. Hainbat argitalpen etnografiko eta ikerketatan ere oinarritu gara.

Nola antolatu duzue bildutako materiala?

50 jolasak fitxetan bildu ditugu; bakoitzak fitxa bana du. Fitxetan ahalik eta informazio gehiena bildu zuten saiatu gara: idatzita

nola jolastu behar den zehazten da. Atal hori euskaraz gain, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez ere argitaratu dugu. Idatziaz gain, pantaila txiki bat agertzen da, eta, bertan, marrazki bizidun moduko animazio batzuen bidez, nola jolasten den ikus daiteke. Bestalde, jolasaren ezaugarriak ere zehazten dira: zein adinetik aurrerako haurrentzako den, eta zein den beharrezko materiala. Lana osatzeko, jolastean erabil daitezkeen euskarazko esamoldeen zerrenda ere ageri da.


Zein da kaleratutako CDaren helburua?

Gure helburu nagusia euskara sustatzea da. Produktu

honekin, zehazki, kalean egiten diren jolasak euskaraz egitea da xedea. Haur zein helduei euskaraz jolas daitekeela erakutsi nahi diegu, eta, bide batez, euskararen erabilera sustatu nahi dugu.

Zein adinetako haurrentzako jolasak bildu dituzue?


CDan jolasa zein adinetatik aurrera egin daitekeen zehazten dugu, baina, edonor ibil daiteke lanean bildutako 50 jolasetan. Jolasak, nagusiki, Haur eta Lehen Hezkuntzako haurrentzat dira, hau da, 3 urtetik 12 urte bitarteko haurrentzat. Baina produktua guraso eta irakasleentzat ere bada, jolasak ikasi, eta, ondoren, guztiak batera jolas daitezten.



Izenburua: Euskal Jolasen Bilduma 2.
Egilea: Urtxintxa Eskola.
Jolas kopurua: 50 jolas.
Prezioa: 20 euro.

LIBURUA

'Bat'



Bat txakurkumea da bilduma honeko protagonista. Liburuetan, Bat txakurtxoaren bizipenak kontatzen dira: zertan jolasten den, zer jaten duen, nola oheratzen den, eta nola janzten den. Liburuak 6 hilabetetik 4 urte arteko haurrentzako prestatuak dira, eta esku artean erabilitakoan, kris-kras soinuak egiten du.

Guido Van Genechten

Argitaletxea ■ Ibaizabal

DISKOA

'Heldu artean'



Bakarlari bizkaitarraren bosgarren diskoa da ondorengoa. Folk akustikoaren bidetik jarraitzen du, eta diskoan agertzen diren kanta gehienak abeslariak berak sortuak dira. *Maiztza* kanta, berriz, Kirmen Uribe idatzi du. Eguneroko gaiak eta bizipenak hartu ditu gaitzat diskoa osatzen duten 11 kantak egiteko. Sentimenduz beteriko diskoa da Urdangarinen azkena.

Mikel Urdangarin

Argitaletxea ■ Gaztelupeko Hotsak